

Zinemarako laguntzen sistema berria.

Laguntzen eta zerga-pizgarrien euskal sistemara egokitzea eta harekin bat etortzea.

Data: 2016.eko otsailaren 24a

Lekua: TABAKALERA. (Sala Z)
Duque de Mandas pasealekua, 52. Donostia

Inskripzioa: Nahitaezkoa, [formularioa](#) beteta.

Parte-hartzea doan. Plaza mugatuak.

Antolatzailea:



Laguntzaileak:





Sarrera

2015. urtean, maiatzaren 14ko 6/2015 Errege Lege Dekretuaren argitalpenaren bidez, Zinemaren 55/2007 Legea aldatu zen; alde batetik, zinematografiarako eta ikus-entzunezkoetarako laguntzen sistema "Obra zinematografikoetarako eta ikus-entzunezkoen sektoreko beste produkzio batzuetarako Estatuko laguntzei buruzko Batzordearen komunikaziora" egokitu zen, eta, bestetik, film luzeak produzitzeko laguntzen sistema aldatu zen. Horrez gain, 2796/2015 eta 2784/2015 ministro-aginduak argitaratu ziren; *horien bidez, 55/2007 Legearen III. Kapituluaren aurreikusitako laguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dira, eta film baten kostuaren onarpena eta produktorearen inbertsioa arautzen dira.*

Eredu berriak kendu egin ditu film luzeak amortizatzeko a posteriori ematen ziren laguntzak, eta aurreratutako laguntzen sistema batekin ordezkatu ditu, zalantzak saihesteko eta produkzioen finantzaketa progresiboa ahalbidetzeko. Aurreko automatismoa alde batera utzita, irizpide objektiboak aplikatuta emango dira aurreratutako laguntzak, eta irizpide horiek finkatzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste: onuradunaren kaudimen teknikoa, proiektuaren bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioa, proiektuaren zabalkundea, proiektuak Espainian eta Europan duen kultura-garrantzia, proiektuaren izaera berritzailea eta Espainian espero den inbertsioaren eragin sozioekonomikoa.

Gainera, araudia Europako Batzordearen zinemari buruzko Komunikaziora egokitzeko prozesuaren esparruan, garrantzi berezia dute produkzioarako laguntzen gehieneko intentsitateari dagokionez ezartzen diren mugek, baita laguntza horiek Estatuan zein foru-mailan obra zinematografikoak finantzatzeko oinarritzko tresna osagarri gisa garatzen ari diren zerga-pizgarrien sistemekin bat etortzeko eta konbinatzeko aukerak ere.

Zalantzarik gabe, aldaketa horiek guztiek eragin garrantzitsua dute euskal produkzio-enpresek proiektuak egiteko bete behar dituzten baldintzetan (proiektuetarako finantzaketa lortzeko aukera ematen duten lineak ahalik eta bermerik handienarekin eskuragarri eduki nahi izanez gero).

Egoera horren aurrean, Ikus-Entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarteak (IBAIA), Eusko Jaurilaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren, Ikus-entzunezkoen produktoreen eskubideak kudeatzeko erakundearen (EGEDA), Donostiako Sustapena, FAPAE eta Zineuskadiren lankidetzarekin, jardunaldi hau antolatu du, zinemarako laguntzen eredu berria eta foru-araudian produkzio zinematografikoetan egindako inbertsioengatik zerga-kenkariari dagokien aurreikusitako aldaketak ezagutzera emateko, Euskadiko sistema egokitzeko dauden premiak aztertzeko eta, era horretan, gure sistema optimizatu eta indartzeko eta sistema horri beharrezkoa den segurtasun juridikoa emateko.



Programa

- 9:40 / 9:45** Aurkezpena
 - * Joxe Portela jauna (IBAIako lehendakaria)

- 9:45 / 11:15** Zinemarako laguntzen eredu berria. Film luzeak produzitzeko laguntza orokorrak eta selektiboak (proiektuan oinarrituta). Film baten kostuaren onarpena.
 - * Mabel Klimt andrea (FAPAEko idazkari nagusia)

- 11:15 / 11:45** Kafea hartzeko etenaldia

- 11:45 / 12:30** Film luzeen Espainiako produkzioetan egindako inbertsioengatiko kenkaria aplikatzeko foru-araudiaren aplikazioa eta garapena.
 - * Iñigo Garmendia jauna. (NORGESTION enpresako bazkidea)

- 12:30/13:30** Zinemarako laguntzen eredu berria indarrean jartzearen ondorioak. Egungo esparruan euskal produkzioak finantzatzeko dauden aukerak. Sistema optimizatzeko aldaketa-premiak.
 - Mahai-ingurua
 - * Mabel Klimt andrea (FAPAEko idazkari nagusia)
 - * Iñigo Garmendia jauna (NORGESTION enpresako bazkidea)
 - * Puy Oriá andrea (AMAKo lehendakaria)
 - * Koldo Zuazua jauna (KOWALSKI FILMS)
 - Moderatzailea:
 - * Joxe Portela jauna (IBAIako lehendakaria)